ARLOAREN, JAKINTZAGAIAREN EDO EREMUAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA TXANTILOIA

Ikastetxea	Arrigorriaga BHI	**Kodea**	015072	**Ikasturtea**	2026/2027
Etapa	Batxilergoa	**Zikloa/maila**	2		
Arloa/ Jakintzagaia/ Eremua	Geografia	**Irakasleak**	Beñat Artabe		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxeko proiektuak, aurreko ikasturteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Ikasleen abiapuntua: Geografia, DBH osoan landu izan duten jakintzagaia da. DBH1en Unibertsoa eta Eguzki-sistematik hasita, Lurrazalaren ezaugarriak, aspektu ekonomiko eta sozialak, kulturalak, ingurugiroarekin lotutakoak ikasi dituzte. Oinarri hau abiapuntutzat harturik, jakintzagaiei sakontasun handiagoz helduko diegu Bigarren Batxilergoko kurtso honetan, batez ere Euskal Herria eta Espainiako geografiari atentzio berezia eskainiz.

Ikasgelaren testuingurua: Azken urteotako bilakaerari erreparatuta, Batxilergoko 2. mailako Geografiako taldeek gorakada nabarmena izan dute, hasierako talde txikietatik urtetik urtera ikasle kopuru handiagoa biltzen duten geletara igaroz. Ikasle hauek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) osoan zehar Geografia eta Historia irakasgaiaren bidez oinarrizko jakintzak bereganatu dituzte, eta kurtso honen helburu nagusia oinarri horietatik abiatuta gai ezberdinetan sakontzea izango da; betiere hausnarketa kritikoan oinarrituta, gure planetaren ezaugarri fisikoak nahiz gure gizartearen etorkizuneko erronka nagusiak aztertuz. Horrez gain, ikasleen profilak anitzak dira: gehienek irakasgaia curriculum orokorraren zati gisa jarraitzen badute ere, badira unibertsitate ikasketak egiteko asmoa dutenak, eta horietako batzuek Unibertsitatean Sartzeko Hautaprobetako

(USAP) Geografiako azterketa espezifikoa prestatzea dute helburu.

Ikastetxeko proiektuak
Honako hauek dira ikastetxean gaur-gaurkoz indarrean dauden proiektuak Geografia irakasgaian eragina dutenak:

AGENDA 30: ikastetxearen iraunkortasun eta kalitaterako hezkuntza programa honen bidez hezkuntza komunitatea tokiko zein planetako ingurumenaren egoeraz sentsibilizatu eta honen aldeko jarrerak eta konpromisoak hartzen dira. Agenda 30eko helburuetan oinarrituta garatu behar ditugu ikas-egoerak ahal den neurrian.

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA: Hizkuntza normalkuntza proiektuaren helburuekin bat eginez, euskararen erabilera eta kalitatea bermatzeko ahalegin berezia egingo da.

ELEANIZTASUNERANTZ: Jatorrian eleaniztasuna helburu zuen proiektu honek Hizkuntzen Trataera Bateraturantz garamatza eta orokorrean irakasgai ezberdinen arteko armonizaziora hizkuntzaren esparru ezberdinei dagokionez.

Aurreko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak
Geografia irakasgaia oso tresna baliagarria da ikasleen parte-hartze aktiboa bultzatzeko. Ikasleengan interesa pizteko, edukiei gaurkotasun handiko gizarte-arazoekin lotura emango zaie, eztabaida zein hausnarketa kritikoa sustatuz. Eduki jakin batzuk erakusteko azalpen magistral eta teorikoak beharrezkoak badira ere, jarduera praktikoak gailenduko dira ikaskuntza-prozesua motibagarriagoa eta esanguratsuagoa egiteko. Azkenik, irakasgaiaren izaera bisualaz baliatuz, ikus-entzunezko baliabideak (argazkiak, mapak eta grafikoak) zabal erabiliko dira aurkezpen zein azalpenetan; ordea, arretagune nagusietako bat testuen eta artikuluen irakurmena nahiz analisia izango da, baliabide grafiko horiek testuinguruan jarri, ulermena sakondu eta informazioa kritikoki interpretatzeko gaitasuna garatzeko asmoz.

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, IKT baliabideak, etab.

Estrategiak eta metodoak

Ikasleek astean 55minutuko lau klase izango dituzte Geografia irakasgaian.

Asteko lehenengo hiru klaseek ondorengo egitura izango dute:

- **25 min:** Irakasleak gaiaren teoria emango du, normalean diapositiben aurkezpen baten bidez.
- **10 min:** Ikasleak borobilean elkartuko dira eta eztabaidatuko dute iritzia emanez eta behar denetan argumentatuz. Gaiaren inguruan norbaitek gehiago baleki guztiokin parteka dezake. Bestetik, norbaitek interesa balu galderak ere egiteko aprobetxa dezake.
- **20 min:** Klasearen azken zatian lan praktiko bat eskatuko zaie, emandako gaiarekin lotutako mapa edo grafikoren bat aztertzeko, gaiarekin lotutako USAPeko galderaren bat erantzuteko praktikatzeko, egun horretan klasean emandakoaren eskema bat egiteko edukiak berriz ere errepasatuz eta ideiak ordenatuta barneratzeko helburuarekin...

Asteko azken klasea ezberdin planteatuko dugu, ikasleak nekatuago egoten dira aste osoan egindako esfortzuaren ondorioz.

- **20 min:** Ikasleak binaka/hirunaka jarriko ditugu eta astean zehar landu diren edukiekin erlazionatutako gai, testu, notizia edo bulo... emango zaizkie.
- **35 min:** Talde bakoitzak egokitu zaion gaia/notizia/buloa aurkeztu beharko diete gainontzekoei.

*Aste guztietan ez dugu egitura berbera jarraituko, batzuetan egokitu egingo dugu beharren arabera: irteerek, egun bereziek edo jarduerek hala eskatzen dutelako.

Egitura honekin honakoa bultzatu nahi dugu Geografia irakasgaian:

- **Geografia gaiaren inguruko ezagutza aurreratua:** dakitenetik abiatuta ezagutzak eta konpetentziak ahalik eta gehien gara.
- **Kausa eta ondorioen arteko erlazioa, ideien arteko erlazioa:** Irakaslearen azalpenen bitartez, irakurriz zein denon artean eztabaidak eginez gizarteko hainbat arazoren kausa eta hauen ondorioak hobeto ulertzea. Testuen erredakzio eta aurkezpenen bitartez ideiak ordenatu eta erlazionatzen ikastea, Lurrean zein gizartean ematen diren prozesu konplexuak azaltzen ikastea...
- **Iritzi kritikoa:** Informazio fidagarria bilatzen ikastea, iritzi ezberdinak datuekin kontrastatuz iritzi propio bat garatzea.
- **Irakurmena:** askotariko gaien inguruan irakurtzea, gai bakoitzari dagokien hiztegi teknikoa barneratzea.
- **Ahozkotasuna:** ahozko jariotasuna eta egokitasunean hobetzea, azalpenak eman eta argudioak modu egokian ematen ikasteko.
- **Partehartzea:** ikasleak ikasketa-prozesuaren parte direla sentitzea, beraien iritziak kontutan hartzen dela ikustea.
- **Interesa:** gaiarekiko atxikimendua bultzatzea, edukiak beraientzat hurbilagoak diren gaiekin erlazionatzea, modu honetan beren interesa piztuz eta partehartzea bultzatuz.

Hizkuntzen trataera

- Klasea euskara hutsean izango.

- Testu iruzkin eta iritzi artikuluen bitartez euskaraz idazteko gaitasuna hobetzea bultzatuko da.
- Eztabaida eta aurkezpenen bitartez euskarazko ahozkotasuna hobetzea bultzatuko da.
- Modu puntualean gazteleraz zein ingelesez dagoen materialen bat erabiliko dugu. Bestetik, ikasleek beren iruzkin eta testuak idazteko edo aurkezpenetarako informazio gehigarria bilatzerakoan hainbat hizkuntzatan dauden testuak irakurri beharko dituzte baita.

Ikasleen eta irakasleen antolamendua

- Ikasle guztiek berdin jasoko dute irakasgaia, USAPeko Geografiako azterketara aurkeztu edo ez. Hala ere, kurtso hasieran, azterketara aurkezteko asmoa dutenei karpeta bana banatuko zaie 2020tik aurrera izan diren USAPeko Ohiko eta Ezohiko azterketa guztiekin. Edukiak ematen goazen heinean ikasle hauei proposatuko zaie azterketa hauek apurka egiten joatea kurtso hasieratik praktikatzen joateko.
- Ikasle eta irakasleen komunikazioa ahal denean gelan bertan egingo da, eta bestela Gizarte mintegian artatu ahal izango dira ikasleak. Behar izatekotan irakaslearen posta elektroniko bidez:

benatartabe@arrigorriagabhi.net

Espazioen eta baliabideen erabilera, IKT

- Gehienetan gela arruntean egongo gara, eguraldiaren arabera ahal dugunean kalera aterako gara paisaia naturala eta urbanoa aztertzera.
- Classroomean izango dute beharrezko material guztia: diapositiba aurkezpenak, apunteak, testuak, argazkiak, bideoak, gaian interesa duenarentzat dokumental/pelikula/liburu proposamenak, USAPeko azterketa guztiak 2010.urtetik, ikasteko jokoak...
- Ikasleek Chromebook-a izango dutenez aukera izango da Maps, Google Earth, Geoguesser, Seterra... bezalako aplikazioak erabiltzeko
- Arbel digital interaktiboa.
- Gizarte mintegiko Sitean, mailaz maila Programazio gaurkotuak eta hainbat material eskuragarri izango dituzte.

Curriculum erabakiak	
Funtsezko konpetentziak	Oinarrizko irakaskuntza bukatzean zehazten den ikasleen irteera-profilean jasotzen diren funtsezko konpetentziak honako hauek dira:

	• Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia (HKK). • Konpetentzia eleaniztuna (KE). • Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniaritzarako konpetentzia (STEM). • Konpetentzia digitala (KD). • Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa (KPSII). • Herritartasunerako konpetentzia (HK). • Ekintzailetza-konpetentzia (EK). • Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia (KAKK).

Konpetentzia espezifikoak	**Ebaluazio-irizpideak**
1. Euskal Herriko eta Espainiako egungo eta etorkizuneko erronka ekosozialei buruzko argudioak modu kritikoan eta irizpide geografikoekin ematea, kanal ofizialetatik eta ez-ofizialetatik —formaletatik eta informaletatik— jasotako mezuen kalitatea, fidagarritasuna eta asmoa identifikatuz, bizitza-ohiturak eta kontsumo-eredu jasangaitzak aldatzeko. ***Deskriptore operatiboak:*** *HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM5, PSIIK2, PSIIK4, HK1, HK4, EK1, DK1.*	**1.1.** Euskal Herriak eta Espainiak gaur egun eta etorkizunean izango dituzten erronka ekosozial nagusiak identifikatzea, geografiaren ikuspegiaren bidez haien kausak eta ondorioak azalduz. **1.2.** Euskal Herriko eta Espainiako erronka natural eta sozialei buruz argudiatzea, modu konprometituan eta besteen iritzia errespetatuz, eskuratutako jakintzak erabiliz eta jendaurrean datu zorrotzak aurkeztuz, grafikoen, irudien eta kartografiaren laguntza digitalarekin. **1.3.** Jasangaitzak diren bizimoduak eta kontsumo-ereduak auzitan jartzea eta egon daitezkeen alternatibak baloratzea, egungo eta etorkizuneko erronka ekosozialak jorratzen dituzten orotariko informazio-iturrien analisi geografikoaren bidez eraikitako argudioetan oinarrituz.

2. Paisaia naturalak eta gizatiartuak osatzen dituzten elementuak identifikatzea eta aztertzea, informazio-iturri bisualak, kartografikoak, estatistikoak, grafikoak eta idatziak interpretatuz, espazio geografikoaren eta haren osagaien arteko elkarreraginen konplexutasuna ulertzeko, haren aberastasuna estimatzeko eta jasangarritasuna ingurumen-kontserbaziorako ezinbesteko printzipio gisa aitortzeko. ***Deskriptore operatiboak:*** *STEM4, STEM5, DK1, HK1, HK4, EK1, KKAK1, KKAK2.*	**2.1.** Paisaia naturalei eta gizatiartuei buruzko informazioa zenbait iturritatik ateratzea, elementuak bereiziz eta faktore fisikoen eta giza faktoreen arteko elkarreraginak eta erlazioak interpretatuz. **2.2.** Iraunkortasun printzipioa ingurune naturala kontserbatzeko modu gisa baloratzea, haren konplexutasun sistemikoa onartuz eta ekintza antropikoak haren gainean duen eragina onartuz.
3. Euskal Herriko eta Espainiako dibertsitate naturala eta Europarekiko berezitasun geografikoak aztertzea, erliebearen, klimaren, hidrografiaren eta biodibertsitatearen arloko ezaugarri komunak eta espezifikoak alderatuz, espazioaren pertzepzio pertsonalari buruz gogoeta egiteko. ***Deskriptore operatiboak:*** *KE3, STEM1, STEM4, PSIIK3.1, HK1, HK3,*	**3.1.** Euskal Herriko, Espainiako eta Europako paisaia naturalen aniztasuna eta berezitasunak identifikatzea, haien elementuak, banaketa, ezaugarriak eta kontrasteak zenbait eskalatan alderatuz, baita gizakiak ingurune horiekin erlazionatzeko moduak alderatuz ere. **3.2.** Espazio geografikoaren pertzepzioari buruz gogoeta egitea, mapetan ezaugarri komun eta espezifikoak dituzten eskualde geomorfologikoak eta bioklimatikoak lokalizatuz eta ezagutuz, eta ingurunearen iraunkortasunari egiten dion ekarpena nabarmenduz.
4. Fenomeno naturalak eta giza fenomenoak lokalizatzea eta haien mugak edo kategoriak zehaztasunez argudiatzea, Geografia Informaziorako Teknologiak (GIT) aplikatuz eta geografiaren eta kideko beste edozein zientzien berezko beste	**4.1.** Geografia Informaziorako Teknologiek, eta geografiaren eta kideko zientzietako beste metodo eta teknika batzuek, ezagutza geografikoa eraikitzeko egiten duten ekarpena baloratzea, horien erabilerarekin ohituz.

metodo eta teknika batzuk aplikatuz, edozein azterketatan edo ondoriozko jarduketa-proposamenetan eskalak zer garrantzi duen ulertzeko. ***Deskriptore operatiboak:*** *HKK1, KE2, STEM1, STEM2, DK1, DK2, DK5, HK3, EK1, EK3.*	**4.2.** Geografia Informaziorako Teknologien laguntzaz, edozein fenomeno fisiko edo giza fenomeno lokalizatzea edo irudikatzea, eskala egokia erabiliz eta aukeratutako metodoak eta datuak justifikatuz, baita eskualdeak edo analisirako kategoriak eta trantsizio-eremuak mugatuz ere. **4.3.** Azalpenak emateko helburua duten banakako edo taldeko produktu propioak sortzea, diagnostikoak jakinaraziz, hipotesiak edo ondorioak proposatuz eta Geografia Informaziorako Teknologiak aplikatuz.
5. Bai globalizazioaren kausak eta ondorioak, zein sistema ekonomikoen bilakaeran eta azkenaldiko gizarte-portaeretan globalizazioak duen eragina ulertzea, egungo munduaren interkonexioari eta interdependentziari buruz ikertuko duten berezko produktuak sortuz, egungo sistemak giza duintasunaren eta ingurumenaren gainean dituen zenbait eskalatako ondorioez jabetzeko. ***Deskriptore operatiboak:*** *HKK5, STEM1, STEM5, PSIIK3.1, DK4, HK2, HK3, HK4, EK1, KKAK4.1*	**5.1.** Globalizazioaren kausak azaltzea, baita globalizazioak antolamenduan eta sektore ekonomikoetan —zenbait eskalatan— dituen ondorioak ere, egitura ekonomikoaren bilakaerarekin eta ingurune hurbileko portaera sozialekin erlazionatuz. **5.2.** Gure ekintzek ingurune hurbileko zein beste herrialde batzuetako lan- eta bizi-baldintzetan dituzten ondorioei buruz ikertuko duten produktuak sortzea, formatu analogikoan nahiz digitalean, arrazoizko irtenbideak proposatuz. **5.3.** Ingurumena zaintzeko beharra adieraztea, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-moduek tokiko eskalan eta eskala globalean duten inpaktua aztertuz eta hobetzeko jarduerak proposatuz.
6. Euskal Herriko eta Espainiako lurraldeen arteko desorekak	**6.1.** Euskal Herriko eta Espainiako estatuaren lurralde- eta

eta egitura soziolaborala eta demografikoa modu kritikoan azaltzea, haien kausak aztertuz, lurraldeen arteko interdependentziaz jabetzeko eta elkartasuna, kooperazio-mekanismoak eta gizarte-kohesioa baloratzeko. ***Deskriptore operatiboak:*** *STEM4, PSIIK1.2, PSIIK3.1, HK1, HK2, HK3, EK1, EK2, KKAK3.2.*	administrazio-egitura eta Europar Batasunean sartzearen ondorioak aztertzea, erabaki politikoek biztanleriaren eta errentaren banaketan duten eragina antzemanez. **6.2.** Euskal Herriko, Espainiako eta Europako desoreka sozioekonomikoen jatorria argudiatzea, adierazle demografiko eta sozioekonomiko nagusiak interpretatuz eta gizarte tertziarizatuetan jarduera ekonomikoen eta biztanleriaren lokalizazio-faktoreak aztertuz. **6.3.** Norbanakoen arteko desberdintasunak eta lurralde-desberdintasunak konpentsatzeko mekanismoen beharra argudiatzea, mekanismo horiek sortu dituzten prozesuak eta kausak eta horien ondorio soziolaboralak eta demografikoak identifikatuz.
7. Aurretiko ezagutzak, berriak eta beste jakintza arloetatik datozenak mobilizatzea, iraganeko, egungo eta etorkizuneko egoerei ekitean, erabakiak eta banaka- zein talde-lanerako estrategiak planifikatuz eta birplanteatuz, inguru hurbileko erronkak identifikatzeko eta eraldatzen ari diren testuinguruei irtenbide berritzaileak emateko. ***Deskriptore operatiboak:*** *HKK5, KE2, STEM1, PSIIK1, PSIIK1.1, PSIIK1.2, PSIIK3.2, PSIIK5, HK3, EK1, EK3.*	**7.1.** Tokiko eskalan eta eskala indibidual eta kolektiboan garrantzitsuak diren fenomeno naturalei eta giza fenomenoei buruzko jakintzak berregitea, pentsamendu geografikoa aplikatuz, aldez aurreko ezagutzak eta ezagutza berriak mobilizatuz eta modu kritikoan berrikusiz, hurbileko landa- edo hiri-inguruneko arazoak eta aukerak diagnostikatuz eta aurreikuspenak eta balizko irtenbideak arrazoituz.
Oinarrizko jakintzak	
A. Ingurune fisikoaren jasangarritasuna	

A1 Espainia eta Euskal Herria: munduan duten lokalizazioa eta situazio geografikoa, erliebe-mapen eta mapa bioklimatikoen bidez. Geoposizionamendua eta gailu mugikorrak. Geografia Informaziorako Teknologiak, baliagarritasuna eta aplikazio praktikoak.

A2 Faktore fisikoak eta paisaien eta ekosistemen aniztasuna. Irudien, kartografiaren eta datuen interpretazioa. Euskal Herriko eta Espainiako faktore fisikoen —geomorfologia, klimatologia, edafologia, hidrografia eta landaredia—, eta paisaien aniztasunaren analisia. Faktore fisikoak, giza jardueren baldintzatzailea; eta giza jarduerek faktore fisikoei eragindako alterazioak. Pertsonekin Pertsonentzat arriskuen prebentzioa.

A3 Geomorfologia. Erliebearen eraketa eta eraldaketa. Iberiar penintsularen formazio geologikoa eta eremu litologikoak. Erliebe-unitate nagusien identifikazioa eta banaketa. Giza jarduerek erliebearen gainean duten inpaktua.

A4 Aniztasun klimatikoa. Klimen banaketari eta irudikapenari buruzko analisi konparatiboak. Euskal Herriko eta Espainiako eskualde klimatikoak irudikatzen dituzten klimogramen azterketa. Klima-larrialdia: aldaketak eredu termoplubiometrikoetan. Kausak, ondorioak eta egokitze-neurriak. Eguraldia interpretatzeko estrategiak* eta alerta meteorologikoak; web-
orriak eta aplikazio mugikorrak.

A5 Biodibertsitatea, lurzoruak eta sare hidrikoa. Ezaugarri hidrikoak, edafikoak eta begetalak, eskualde naturalen arabera. Euskal Herriko eta Espainiako arro hidrografiko nagusiak eta ibai- erregimenak. Giza jardueren inpaktua eta horien gaineko ondorioak: biodibertsitatearen galera, lurzoruen galera eta uraren kudeaketa. Pertsonek sortutako arriskuak.

A6 Ingurumen-politikak: natura-ondarea babesteko diagnostiko-tresnen erabilera. Naturagune Babestuen Sarea eta Natura 2000 Sarea. Garapen-ereduaren aldaketei buruzko eztabaida: iraunkortasun printzipioa.

B. Euskal Herria, Espainia, Europa eta Globalizazioa.

B1 Euskal Herria eta Espainia munduan. Egoera geografikoa munduan, mapa politikoen bidez. Munduan duten posizio erlatiboa,

zenbait adierazle sozioekonomikotan. Globalizazioaren mehatxuak eta aukerak. Munduko testuinguru geopolitikoa eta nazioarteko erakundeetan parte hartzea. Nazioarteko kooperazioa eta kanpo misioak. Garapen Iraunkorrerako Helburuekiko konpromisoen diagnostikoa.

B2 Europa: herrialdeen lokalizazioa eta alderdi naturalak. Europar Batasuna gaur egun: lurralde desorekak eta kohesioa politikak, mapa eta adierazle sozioekonomikoen bidez.

B3 Euskal Herriko administrazio-antolamendua, Espainiako Estatuaren testuinguruan: lurraldeen arteko desoreken azterketa, nazio eta autonomia mailan. Adierazle sozioekonomiko ofizialen erabilpena eta erabilera: Eustat, IGN, Espainiako Atlas Nazionala. Lurraldearen kudeaketa eta antolamendua: eskualdearen kohesio eta garapenerako politikei buruzko eztabaida. Ongizate estatuaren egungo egoera eta proiekzioak.

C. Lurraldearen antolamendua ikuspegi ekosozialean

C1 Biztanleriaren bilakaera eta egungo egoera: egituraren eta desoreken analisia. Adierazle nagusiak eta eredu demografikoak. Datuen, grafikoen eta mapen interpretazioa: iraganeko eta oraingo joerak eta proiekzioak. Migrazio-mugimenduak: kanpoko eta barneko migrazioak eta migrazioen ondorioak. Aniztasun etnokulturalarekiko errespetua. Erronka demografikoak, kasuen azterketa: biztanleriaren zahartzea, eta landa-espazioaren despopulazioa...

C2 Hiri-espazioak: hiri-kontzentrazio handiak* Europako eta munduko testuinguruan. *Hiriaren funtzioak eta inguruko lurraldearekiko interdependentzia-erlazioak. Hiri-egitura, planoen bidez. Hirigintza-politikek bizimoduan dituzten ondorioak eta ingurumen-inpaktuak. Hiri jasangarrien ereduak; mugikortasuna. Egungo hirien erronkak, kasuen azterketa: etxebizitzaren arazoa, espazio publikoaren erabilerak, gentrifikazio-prozesuak, suburbanizazioa, eta abar. Landa-espazioak. Nekazaritza paisaien identifikazioa eta elementuak.

C3 Nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren eraldaketak: jardunbide jasangarriak eta jasangaitzak. Hurbileko nekazaritzako elikagaien eta baso-produktuen gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-balioa: aztarna ekologikoen eta egitura soziolaboralaren azterketa. Egungo

Nekazaritza Politika Erkideak landa garapenean eta iraunkortasunean duen eragina. Kasuen azterketa: etiketa bereiziak, ekologikoa eta abar.

C4 Itsas baliabideak eta itsasertzaren eraldaketa: arrantza, akuikultura eta bestelako aprobetxamenduak. Iraunkortasuna eta Arrantza Politika Erkidea. Kasuen azterketa: itsaski-bilketa, baxurako eta alturako arrantza, akuikultura, arrantza-kalen gehiegizko ustiapena, eta abar.

C5 Bigarren sektoreko espazioak. Industria-jardueren bilakaera eta eraldaketak, lehengaien erauzketa eta energia-ekoizpena. Bigarren sektoreko jarduerek paisaian duten inpaktua. Aztarna ekologikoen ebaluazioa; energia-mendekotasuna eta -trantsizioa; industria-, gizarte-eta lan-sarearen egitura eta zeharkako enplegua. Kasuen azterketa: eraikuntza, automobilgintza, nekazaritzako elikagaien industria, eta abar. Lokalizazio-faktoreak. Europar Batasuneko politiken eraginari eta globalizazioari buruzko eztabaida: desindustrializazioa, deslokalizazioa eta industria-birmoldaketa.

C6 Espazio tertziarizatuak. Gizarte postindustrialak eta ekonomiaren tertziarizazioa. Aztarna ekologikoen, lurralde-antolaketaren eta gizarte- eta lan-egituraren analisi kritikoa, erantzukizun sozial korporatiboa eta kontsumitzaileen erantzukizuna. Hirugarren sektoreko jarduerek paisaian duten inpaktua: lokalizazio-faktoreak, zerbitzuen eredu jasangaitzak eta alternatibak. Kasuen azterketa: lehiakortasuna eta desorekak garraioan, merkataritzan, turismoan, funtsezko zerbitzuetan, eta abar. Ekonomia zirkularreko ereduak eta zerbitzuak: ekoizpenaren, banaketaren eta salmentaren arteko erlazioak. Ekonomia digitala: «ekonomia kolaboratiboaren» inpaktua eta negozio-eredu berriak testuinguru globalean eta Europar Batasunean.

C7 Ingurumen-politikak: natura-ondarea babesteko diagnostiko-tresnen erabilera. Naturagune Babestuen Sarea eta Natura 2000 Sarea. Garapen-ereduaren aldaketei buruzko eztabaida: jasangarritasunaren printzipioa.

Curriculumaren plangintza

Ikaskuntza-egoeraren izenburua	Konpetentzia espezifikoak	Ebaluazio- irizpideak	Oinarrizko jakintzak
Lehen hiruhilekoa			
Geografia, XXI. mendeko zientzia bat	7	7.1	A1
Euskal Herriko eta Espainiako antolamendu politikoa eta lurralde-antolamendua.	6, 7	6.2, 6.3, 7.1	B3
Euskal Herriko eta Espainiako ingurune fisikoa	1, 3, 4	1.1, 1.2, 1.3, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3	A1, A2, A3, A5
Euskal Herriko eta Espainiako klima-aniztasuna eta landaredia	1, 3, 4, 7	1.1, 1.2, 1.3, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3, 7.1	A1, A4, A5, A6
Baliabideak eta energia	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	1.1, 1.2, 1.3, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.2, 6.3, 7.1	A5, C5, C7
Paisaia naturalak	1, 2, 3, 4, 7	1.1, 1.2, 1.3, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3, 7.1	A1, A2, A4, A5, A6, C7
Bigarren hiruhilekoa			
Euskal Herriko eta Espainiako biztanleria	1, 4, 5, 6, 7	1.1, 1.2, 1.3, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.2, 6.3, 7.1	B3, C1
Migrazio-fluxuak	4, 5, 6, 7	4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.1, 6.2, 6.3, 7.1	B3, C1
Landa-espazioa	1, 2, 4, 5, 6, 7	1.1, 1.2, 1.3, 2.1, 2.2, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.2, 6.3, 7.1	C3, C4, C7

Industria eta eraikuntza	1, 2, 4, 5, 6, 7	1.1, 1.2, 1.3, 2.1, 2.2, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.2, 6.3, 7.1	C5, C7
Hirugarren sektoreko jarduerak	1, 2, 4, 5, 6, 7	1.1, 1.2, 1.3, 2.1, 2.2, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.2, 6.3, 7.1	C6, C7
Hirugarren hiruhilekoa			
Hiria: egitura eta morfologia	1, 2, 4, 5, 7	1.1, 1.2, 1.3, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.2, 6.3, 7.1	B3, C1, C2, C6, C7
Hiri-sareak eta gaur egungo hirien arazoak	1, 2, 4, 5, 6, 7	1.1, 1.2, 1.3, 2.1, 2.2, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.2, 6.3, 7.1	B3, C1, C2, C6, C7
Europa eta Europar Batasuna	1, 3, 4, 5, 6, 7	1.1, 1.2, 1.3, 3.1, 3.2, 4.1, 4.2, 4.3, 5.1, 5.2, 5.3, 6.1, 7.1	B1, B2, C6

Ebaluazioari, kalifikazioari eta hauen ondorioei buruzko erabakiak

Ebaluazioa

Ebaluazioaren helburua, denborak, eragileak, teknikak, tresnak eta erremintak.

- **Ebaluazioaren helburua:**

  - Ikasle batek ikasitako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak egoera erreal edo testuinguruetan aplikatzeko duen gaitasuna egiaztatzea eta sustatzea da.

  - Ikasleak ikasitakoa praktikan jartzeko, arazoak ebazteko eta erabakiak hartzeko duen gaitasuna neurtzea.

- Ezagutza teorikoak (*jakitea*), trebetasun praktikoak (*egiten jakitea*) eta balio zein jarrerak (*izaten jakitea*) elkarrekin ebaluatzea.

- Prozesuan zehar ikasleari informazio erabilgarria (*feedbacka*) ematea, zer hobetu dezakeen eta nola egin dezakeen ulertu dezan.

- **Denborak:**

-Ikasleek astero izango dute ebaluaziorako balioko duten ariketarik, ez da guztia ebaluazio bukaerako azterketa batera mugatuko.

- **Ebaluatzeko teknikak:**

-Iruzkinak eta iritzi-artikuluak: Eduki teorikoak ematen direnean eta gaiaren inguruan eztabaidatu zein hausnartu ondoren, ikasitakoari buruzko iruzkin bat edo iritzi-artikulu bat idaztea.

-**Eztabaidak:** Gainontzeko ikasleen aurrean parte hartzea, ideiak eta argumentuak modu argi, errespetuzko eta ordenatuan adieraziz.

-Gelan egindako lanak: Gai bat garatzeko gaitasuna ebaluatuko da, hainbat iturritatik informazio gehigarria bilatuz eta analisia eginez.

-Apunteak: Ideia nagusiak laburtzeko, antolatzeko eta eskemak egiteko gaitasuna ebaluatuko da.
-Aurkezpenak: Gai bat sakon landu ondoren, diapositiba bidezko laguntzarekin jendaurrean modu egoki, argi eta egituratuan aurkeztea.

- **Ebaluatzeko tresnak:**

-Errubrikak: Proiektuak, ahozko aurkezpenak, testu-idatziak eta azken ekoizpenak modu objektibo eta gardenean kalifikatzeko erabiliko dira. Errubrika bakoitzean ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak zehazten dira (hasierakoa, egokia, aurreratua eta bikaina). Tresna honek ikasleari hasieratik azken produktuan zer espero den argi izaten laguntzen dio.
-Behaketa-orriak: Gelako eguneroko lanaren, talde-lanaren, jarreraren eta eztabaidetako parte-hartzearen jarraipen sistematikoa egiteko erabiliko dira.

1.Ebaluazioa	
Eguzki-sistema eta galaxiak apunteak	0.5
Eguzki-sistema irudia	0.5
Aurkezpena planetak	0.5
Europako mendikateen mapa	0.3
Europako itsasoak mapa	0.3
Europa penintsula eta irlak mapa	0.3
Europa ibaiak mapa	0.3
Aurkezpena erliebe-elementuak	2
Espainiako erliebe-elementuak mapa	0.4
Espainiako ibaiak mapa	0.3
Euskal Herriko erliebea mapa	0.3
Euskal Herriko ibaiak mapa	0.3
Europako mapa politikoa	0.4
Espainiako erkidegoak mapa	0.4
Espainiako probintzien mapa	0.4
EH probintzien mapa	0.3

Klima zehazten duten faktoreak apunteak	0.5
Zirkulazio atmosferikoa, fronteak eta aire masak apunteak	0.5
Latitudea, erliebea eta itsasoaren eragina	0.5
Isobaren mapa	0.5
Eguraldiaren mapa	0.5
GUZTIRA	10

2.Ebaluazioa	
Iberiar penintsulako klimak mapa	0.5
Klimak aurkezpena	2
Klimograma iruzkina 1	1
Klimograma iruzkina 2	1
Baserri-paisaiak aurkezpena	2
Energia-iturriak aurkezpena	1
Industria Espainian	0.5
Industria mapa Espainia	0.5
Industria EH	0.5
Industria mapa EH	0.5
Turismoa Espainian eta EH	0.5
GUZTIRA	10

3.Ebaluazioa	
Trantsizio demografikoa iruzkina	1.5
Espainiako biztanleriaren dentsitatea mapa iruzkina	1

EH biztanleriaren dentsitatea mapa iruzkina	1
Migrazio-fluxuak apunteak	0.5
Hirien sorrera eta garapena apunteak	0.5
Hirien ereduak apunteak	0.5
Hirien egitura eta morfologia apunteak	0.5
Hirien arazoak apunteak	0.5
Hirien hierarkia Espainian mapa	0.5
Hirien hierarkia EH mapa	0.5
Paisaia iruzkina 1	1.5
Paisaia iruzkina 2	1
Europar Batasuna apunteak	0.5
GUZTIRA	10

Kalifikazioa

Kalifikazio-irizpideak: konpetentzien ponderazioa, ebaluazio-irizpideen ponderazioa eta ebaluazio-irizpideen jardun-maila

Konpetentzia espezifikoa	%	Ebaluazio-irizpidea	%	Ebaluazio-irizpideen jardun-maila (ebaluazio-irizpidea gainditutzat emateko lortu beharreko minimoa)
KE1	14	EI 1.1	33	**1.1.** Euskal Herriak eta Espainiak gaur egun eta etorkizunean izango dituzten erronka ekosozial nagusiak identifikatzea, geografiaren ikuspegiaren bidez haien kausak eta ondorioak azalduz.
		EI 1.2	33	**1.2.** Euskal Herriko eta Espainiako erronka natural eta sozialei buruz argudiatzea, modu konprometituan eta besteen iritzia errespetatuz, eskuratutako jakintzak erabiliz eta jendaurrean datu zorrotzak aurkeztuz, grafikoen, irudien eta kartografiaren laguntza digitalarekin.

		EI 1.3	33	**1.3.** Jasangaitzak diren bizimoduak eta kontsumo-ereduak auzitan jartzea eta egon daitezkeen alternatibak baloratzea, egungo eta etorkizuneko erronka ekosozialak jorratzen dituzten orotariko informazio-iturrien analisi geografikoaren bidez eraikitako argudioetan oinarrituz.
KE2	14	EI 2.1	50	**2.1.** Paisaia naturalei eta gizatiartuei buruzko informazioa zenbait iturritatik ateratzea, elementuak bereiziz eta faktore fisikoen eta giza faktoreen arteko elkarreraginak eta erlazioak interpretatuz.
		EI 2.2	50	**2.2.** Iraunkortasun printzipioa ingurune naturala kontserbatzeko modu gisa baloratzea, haren konplexutasun sistemikoa onartuz eta ekintza antropikoak haren gainean duen eragina onartuz.
KE3	14	EI 3.1	50	**3.1.** Euskal Herriko, Espainiako eta Europako paisaia naturalen aniztasuna eta berezitasunak identifikatzea, haien elementuak, banaketa, ezaugarriak eta kontrasteak zenbait eskalatan alderatuz, baita gizakiak ingurune horiekin erlazionatzeko moduak alderatuz ere.
		EI 3.2	50	**3.2.** Espazio geografikoaren pertzepzioari buruz gogoeta egitea, mapetan ezaugarri komun eta espezifikoak dituzten eskualde geomorfologikoak eta bioklimatikoak lokalizatuz eta ezagutuz, eta ingurunearen iraunkortasunari egiten dion ekarpena nabarmenduz.
KE4	14	EI 4.1	33	**4.1.** Geografia Informaziorako Teknologiek, eta geografiaren eta kideko zientzietako beste metodo eta teknika batzuek, ezagutza geografikoa eraikitzeko egiten duten ekarpena baloratzea, horien erabilerarekin ohituz.
		EI 4.2	33	**4.2.** Geografia Informaziorako Teknologien laguntzaz, edozein fenomeno fisiko edo giza fenomeno lokalizatzea edo irudikatzea, eskala egokia erabiliz eta aukeratutako metodoak eta datuak justifikatuz, baita eskualdeak edo analisirako kategoriak eta trantsizio-eremuak mugatuz

				ere.
		EI 4.3	33	**4.3.** Azalpenak emateko helburua duten banakako edo taldeko produktu propioak sortzea, diagnostikoak jakinaraziz, hipotesiak edo ondorioak proposatuz eta Geografia Informaziorako Teknologiak aplikatuz.
KE5	14	EI 5.1	33	**5.1.** Globalizazioaren kausak azaltzea, baita globalizazioak antolamenduan eta sektore ekonomikoetan —zenbait eskalatan— dituen ondorioak ere, egitura ekonomikoaren bilakaerarekin eta ingurune hurbileko portaera sozialekin erlazionatuz.
		EI 5.2	33	**5.2.** Gure ekintzek ingurune hurbileko zein beste herrialde batzuetako lan- eta bizi-baldintzetan dituzten ondorioei buruz ikertuko duten produktuak sortzea, formatu analogikoan nahiz digitalean, arrazoizko irtenbideak proposatuz.
		EI 5.3	33	**5.3.** Ingurumena zaintzeko beharra adieraztea, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-moduek tokiko eskalan eta eskala globalean duten inpaktua aztertuz eta hobetzeko jarduerak proposatuz.
KE6	14	EI 6.1	33	**6.1.** Euskal Herriko eta Espainiako estatuaren lurralde- eta administrazio-egitura eta Europar Batasunean sartzearen ondorioak aztertzea, erabaki politikoek biztanleriaren eta errentaren banaketan duten eragina antzemanez.
		EI 6.2	33	**6.2.** Euskal Herriko, Espainiako eta Europako desoreka sozioekonomikoen jatorria argudiatzea, adierazle demografiko eta sozioekonomiko nagusiak interpretatuz eta gizarte tertziarizatuetan jarduera ekonomikoen eta biztanleriaren lokalizazio-faktoreak aztertuz.
		EI 6.3	33	**6.3.** Norbanakoen arteko desberdintasunak eta lurralde-desberdintasunak konpentsatzeko

				mekanismoen beharra argudiatzea, mekanismo horiek sortu dituzten prozesuak eta kausak eta horien ondorio soziolaboralak eta demografikoak identifikatuz.
KE7	14	EI 7.1	100	**7.1.** Tokiko eskalan eta eskala indibidual eta kolektiboan garrantzitsuak diren fenomeno naturalei eta giza fenomenoei buruzko jakintzak berregitea, pentsamendu geografikoa aplikatuz, aldez aurreko ezagutzak eta ezagutza berriak mobilizatuz eta modu kritikoan berrikusiz, hurbileko landa- edo hiri-inguruneko arazoak eta aukerak diagnostikatuz eta aurreikuspenak eta balizko irtenbideak arrazoituz.

Ebaluazioaren ondorioak

Errefortzu-neurriak eta egokitzeko-neurriak, curriculuma zabaltzeko eta aberasteko proposamenak, berariazko programatan parte hartzea

- Puntuatzen duten atalen noten baturak 5 eman behar du.
- Ebaluazio bakoitzean puntu gehien balio duten ataletan gutxienez 5 izan beharko dute gainditzeko.
- Puntu gehien balio duten atalen bat gainditu ezean, ikasleek aukera izango dute errekuperatzeko Ohikoetan.
- Gainontzeko ataletan ateratako notengatik gainditzen ez badute irakasleak zehaztuko du zein atal errekuperatu beharko dituen aprobatua lortzeko eta ikasleak Ohikoetan entregatu beharko ditu lan horiek.
- Ohikoetan ikasleek gainditzen ez badute aukera izango dute metodologia berberaren bidez Ezohikoetan errekuperatzeko.

Progamazioaren jarraipena eta ebaluazioa				
Ebaluatuko den alderdia		**Indarguneak**	**Zailtasunak**	**Hobekuntza-proposamena**
	Atazen eta material didaktikoaren diseinua.			
	Erabilitako baliabideen aukeraketa.			
	Irakaslearen eta ikasleen rolak.			
	IDU printzipioen aplikazioa.			
	Taldekatzeak eratzeko irizpideak.			
	Egokitzapenak.			
	Espazioaren antolaketa.			
Ebaluatuko den alderdia		**Indarguneak**	**Zailtasunak**	**Hobekuntza-proposamena**

	Programazio-unitateen sekuentzia.			
	Programazio-unitateen antolaketa.			
	Konpetentzia espezifikoen eta ebaluazio irizpideen arteko lotura.			
	Oinarrizko jakintzen antolaketa.			
Ebaluatuko den alderdia		**Indarguneak**	**Zailtasunak**	**Hobekuntza-proposamena**
	Erabilitako erremintak.			
	Erabilitako tresnak.			
	Heteroebaluazioaren diseinua eta plangintza.			
	Errefortzu-neurriak egokiak izan dira.			